txintxarri

2021-10-08 OSTIRALA / 1560. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM



Ahaleginari, merezi duen aitortza

Nahia Zudaire Borrezo igerilaria gazteak Tokioko Paralinpiar Jokoetan egindako lanari aintzatespena egin dio udalak eta herriak / 11

Fase berri bat hasi da

Pandemiaren eragina apaltzeko indarrean egon diren osasun neurri ia guztiak bertan behera utzi ditu Eusko Jaurlaritzak / 2

Argindarraren prezioaren etengabeko igoera salatzeko itzalaldi elektrikora batzera deitu dute / 3

Urriaren 17an aurkeztuko dute 'Testigantzak' liburua, bortizkeria frankistari buruzkoa / 5

Inge Mendioroz sortzaileak parte hartu du 'Txoria txori' abestian oinarritutako erakusketa batean / 6

Kukulaisi topagunera batu dira Hego Euskal Herriko hamalau elkarte; horien arteak Ttakun KE / 7

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones-ek partida bat irabazi eta bestea galdu du denboraldi hasieran / 12

Hurrengo **TXINTXARRI** *paperean* ***urriaren 22an*** *argitaratuko dugu*





Arkupe tabernako zenbait bezero barran kontsumitzen hasi dira berriro. TXINTXARRI



Komertzioen kanpoaldean ilarak egiten dituzte herritarrek oraindik ere. TXINTXARRI

Fase berri baten lehenengo egunak

Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi ditu osasun neurri ia guztiak, dekretu bidez. Dena den, espazio itxietan maskara eramatea derrigorrezkoa da oraindik, eta kanpoaldean ere bai, pertsonen arteko distantzia mantendu ezin denean. "Osasun zaintzaren fasea" hasi da

Txintxarri

Osasun larrialdia bertan behera utzi du Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez, eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) "fase berri batean" sartu dela iragarri, "osasun zaintzarenean". Horrekin batera, bertan behera utzi ditu koronabirusaren eragina apaltzen saiatzeko hartutako osasun neurri gehienak, batzuk izan ezik: maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da espazio itxietan, eta aire zabalean ere bai, baldin eta pertsonek ezin badute mantendu elkarren arteko metro eta erdiko distantzia. Halaber, barrualdean aurrera eramaten diren jardueretako gehieneko edukiera %80koa izango da, baldin eta aretoak 5.000 pertsona edo gehiagorentzako tokia badu. Hirugarrenik, Lakuak gogorarazi du ekitaldietan debekatuta dagoela jatea eta edatea (ura salbu), barrualdean zein kanpoaldean, horretarako prestatuta dauden guneetan izan ezik.

LABI aholku batzordea deuseztu egin duela jakinarazi du Iñigo Urkullu lehendakariak. Mahai teknikoko adituen txostena eskuetan, koronabirusaren eragina "endemikoa" dela zehaztu du, hau da, egunez egun atzematen diren kasuen kopurua egonkortu egin dela, "nahiz eta agerraldi puntualen bat gerta daitekeen". Edonola ere, nabarmendu du "birusaren aurkako borroka" ez dela bukatu oraindik.

Apurka-apurka, egokitzen

Kalera atera da TXINTXARRI aldizkaria urriaren 7an, Lakuak dekretua argitaratu duen egunean, giroa nolakoa den ikustera. Erdiguneko taberna batzuetan sartu da, eta ikusi du jendea barran zutik kontsumitzen, baina gutxi, eguraldi eguzkitsua tarteko askok nahiago izan dutelako terrazetan eseri. Ilargiko zerbitzari Lorena Saenzen arabera, goizean sartu diren bezeroetako batzuek barran kontsumitu dute, baina bat baino gehiago paretera begira jarri da, "zigortuta balego bezala". Arkupen ere zutik hartu dute zenbaitek kafea. Bestalde, komertzio kanpoaldeetako ilarak ez dira desagertu; Cecilia fruta dendakoa, kasurako.

Maialen Chourraut kiroldegian eta Michelin kirolgunean aldaketarik ez, oraingoz: Internet bidez erreserbatu behar dira orduak, eta edukierak ez dira aldatu.

Nola lan egingo dute herriko ikastetxeetan? Urriaren 11n jakingo dute, orduan sartuko baitira indarrean protokolo eguneratuak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek aurreratu duenez.


TABERNETAKO BARRETAN ZUTIK KONTSUMITZEN HASI DIRA BEZERO BATZUK

Martxotik, zenbaki apalenak

Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, 2020ko martxotik hona 2.154 lasarteoriatar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak, biztanleen %11,3 –herrian 19.045 pertsona bizi dira, Euskal Estatistika Erakundeak jakinarazi duenez–. Horietatik oso gutxi gaixotu dira azkenaldian, koronabirusaren intzidentzia tasa gero eta apalagoa baita gurean. Urriaren 6ra arteko zenbakiak eskuetan –horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, aldizkaria inprentara bidali aurretik–, irailaren 23tik hamahiru kutsatze zenbatu dituzte, eta intzidentzia tasa metatua 68,26 da; eremu berdetik oso-oso gertu dago. Adierazle hori ez da horren baxua izan aurtengo martxotik –pare bat egunez 60tik jaitsi zen kasuen batezbestekoa–. Lau egunez segidan, urriaren 2tik 6ra ez dute positibo berririk diagnostikatu Lasarte-Orian; hori ere ez zen duela zazpi hilabetetik gertatzen. Urteko hamargarren hilabeteko aurreneko egunetan bi pertsona kutsatu direla baieztatu dute.

Ez dirudi aurtengo urria izango denik intzidentzia gehieneko hilabetea, eguneko kasu bat baino gutxiago erregistratu dutelako; iazko azaroko batezbestekotik oso urrun dago –eguneko 9,2 izan ziren, 275 hilabete osoan–.

Beterri-Buruntza eskualdean dago Lasarte-Oria, beste bost udalerrirekin batera: Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil. Horietan guztietan ere gero eta apalagoa da koronabirusaren eragina. Hori bai, herriz herriko intzidentzia tasa metatuak ez dira berberak herri guztietan. Urriaren 6ko datu epidemiologikoen arabera, Hernani eta Usurbil eremu berdean daude, 60 positibo baino gutxiagokoa baita batezbestekoa. Andoain, Astigarraga eta Lasarte-Oria muga horretatik oso gertu daude; Urnieta, berriz, urrun dago, intzidentzia tasa metatua 241,58 baita.



Intzidentzia gehieneko hilabetea 2020ko azaroa izan da; 275 positibo erregistratu zituzten. TXINTXARRI

Eguneraketak, astero

Osasun sailak iragarri du ez dituela datu epidemiologikoak egunero berrituko. Txostenak astero argitaratuko ditu: astelehenetan, koronabirusaren bilakaera; eta astearteetan, txertaketari buruzkoak. TXINTXARRI-k ere maiztasuna jaitsi, eta astelehenetan argitaratuko ditu albisteak.



Urriaren 8rako deitu duten itzalaldi elektrikoarekin bat egitera deitu du herritar talde batek. TXINTXARRI

Argindarraren prezio igoera salatuko dute

Argindarraren prezioaren etengabeko prezio igoera salatzeko itzalaldi elektrikoa deitu dute urriaren 8rako. Herritar talde batek bat egin du ekintza horrekin, eta dei egin die lasarteoriatarrei, 20:00etatik 20:30era argiak itzali eta zartaginak jotzera

Txintxarri

Lasarteoriatar talde bat elkartu da Okendo plazan, enpresa elektrikoen "oligopolio jokabidea" salatzeko. Ez dute onartzen argindarra kudeatzen duten enpresa handiek irabaziak handitu eta aberasteko, herritarrak pobretzea. Horrela, baliabide horren prezioaren etengabeko gorakadaren aurka bildu dira herriko plazan. Hogei bat lagun batu dira prentsaurrera.

Hori dela eta, datorren ostiralerako, urriaren 8rako, deituta dagoen itzalaldi elektrikoarekin bat egingo dutela jakinarazi dute, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte ekintza horretan parte hartzera.

Ordu erdiko iraupena izango du itzalaldiak: gaueko 22:00etatik 22:30era. Denbora tarte horretan, kazola edo zartagina jotzera animatu nahi dituzte bizilagunak: "Argiak itzali ondoren, norberaren etxeko leihoan edo Okendo plazan egingo dugun elkarretaratzean kazola gogotik astintzeko deialdia luzatzen dizuegu".

Elektriketatik deskonektatzeko aldarria eginez amaitu dute agerraldia.



NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

Argi ta Gar(b)i

"Argiaren prezio igoerak erosketaren kostua handitu du". Bai, nabaritzen hasi da; baina ekonomialarien arabera, kontsumitzaileok, benetako eragina urtebete geroago nabarituko dugu, 2022aren amaierarako. Funtsezko faktoreak izan dira: COVID-19 pandemia (hornidura katearen eteteagatik) eta erregaien prezioen igoera (elikagaien garraioaren kostuagatik); baina ez dira izan bakarrak. Izan ere, argia eta garia hitzek letrak partekatzen dituzte eta askoz gehiago. Pandemia baino lehen, Txinaren eta AEBen arteko gatazka gertatu zen: haien arteko mendekotasunagatik. Txinatarrek, herritarrak eta abereak elikatzeko, zerealen beharra zuten bitartean (garia eta soia, bereziki); amerikarrek, Asian hazitako txerri haragiaren beharra zuten. Ondorioz, muga zergak eta prezioen igoera handik eta hemendik hasi ziren.

Adituek argitaratu dutenez, ekoizleen prezioak ia % 50 igo dira azken urtean; baina orgaren prezio igoera EZ da islatu baserritarren irabazietan (lehen sektorean), gastuak gehiago igo direlako. Errentagarriagoa zaie fruta eta barazkiak jaso gabe uztea, edota bertako esne behien ordez txerri azienda jartzea. Beraz, argi ibili! Ura, fruta, olioa, arrautzak, esnea eta hegazti haragia bezalako elikagaiak % 5-20 igo daitezke, argiaren abiadura gaindituz; patata, lekale eta barazkiak altxaeren multzoa osatzen dutelarik.

Baso suteak Amazonian (munduko baso tropikal zabalenean) eta izozteak Niagarako ur jauzietan, lehorteak Parana ibaian (Hego Amerikako bigarren ibai luzeenean) eta uholdeak Sahelen (Saharako basamortuaren eta Sudango sabanaren artean). Ezin dugu ahaztu klima aldaketak duen eragina: atzerapenak uztan, laboreen errendimenduen murrizteak... Hitz batez, eskasia giza eta animalien kontsumorako; eskaria handiagotuz doan heinean. Iragan den hilabetean, klimaren kontzentrazioa ospatu zen aldaketak aldarrikatzeko asmoz; baina zuk ere egin dezakezu zerbait: erosten duzuna aukeratu, haren jatorria eta inpaktua ezagututa. Hortaz, argi duzu? Inoiz ez da hain garrantzitsua izan bertako (hurbileko) elikagaien kontsumoa: garbiagoak, elikagarriagoak, goxoagoak eta geureagoak direlako.

Azkenak, argia itzal dezala.

Udalak antolatutako auzoz auzoko tailerren bigarren txanda hasiko da

Ipuin kontaketa Zumaburu auzoan eta txapa tailerra Sasoetan. Bi saio horietakoren batean parte hartu ahalko dute herritarrek urriaren 9an. Izen ematea ikastaroa hasi aurreko minutuetan egin behar dela jakinarazi du Lasarte-Oriako Udalak.

Txapa tailerra 11:00etan hasiko da eta 13:30ean bukatu. Ipuin kontaketa saioa, berriz, 12:00etan izango da eta ordubete iraungo du. Hurrengo saioak ere iragarri ditu udalak: Hilaren 16an (larunbata) Zabaletan azazkal tailerra, eta ipuin kontalaria Atsobakar auzoetan.

DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT

ESKAINTZA IREKIKO IKASTAROAK 2021eko ABENDUA arte

ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA
· Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak muntatzea eta mantentzea

ADMINISTRAZIOA
· GOOGLE web orrialdeak
· KONTABILITATEA

MANTENIMENDUA /ENERGIA
· Hozteko ekipoak gas fluordunekin manipulatzea
· 2D instalazio termikoen diseinua: Autocad
· 3D instalazio termikoen diseinua: Revit
· Hozteko Zentrala
· Termografia
· CO2-a Etorkizuneko hozgarria
· Argiztapen eraginkorra eta Dialux
· Oinarrizko mantentze-lanak etxebizitzetan (Elektrizitatea eta iturgintza)
· Eraikinen Eraginkortasun Energetikoko parametro ekonomiko errentagarriak
· Aire girotuko instalazioak muntatzea eta mantentzea
· Eraginkortasun energetikoa uraren ziklo integralean

FABRIKAZIO MEKANIKA
· Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa
· Fusioa eta isurketa
· Fagor Torneado: prestaketa eta mekanizazioa
· Planoen intepretazioa
· Fagor 8050/55/65 fresagailuaren programazioa
· Elektrohigadura bidezko zehaztapenaren mekanizazioa
· Catia I. maila: Mechanical Design
· CAM Gibbs Oinarrizko marrubia
· CAM Gibbs fresa aurreratua
· CAM Gibbs oinarrizko tornua
· CAM Gibbs tornu aurreratua

LANERAKO PRESTAKUNTZA
· Nola erabili asertibitatea komunikazioa hobetzeko eta arazoak konpontzeko
· Bezeroen arreta eta kudeaketa egoera desberdinetan
· Antolatu, lehenetsi eta hobetu zure emaitzak
· Adimen emozionala. Sentsibilizazioa. 1. maila
· Aurkezpen Eraginkorrak Publikoan

CIFP USURBIL LHII
Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa) 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.lhusurbil.eus · cursos@lhusurbil.eus
943 36 46 00 (Luz. 78) · 667 415 810

ZubiGune fundazioa · USURBILGO LANBIDE ESKOLA · HOBETUZ · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

TXINTXARRI PUBLIZITATEA:
Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?
publizitatea@ttakun.eus
943-37 14 48 (106)
646 82 44 66
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria



Andoaingo eta Lasarte-Oriako Bizikidetza Mahaietako kideek aurkeztu dute egitasmoa. TXINTXARRI

Bizikidetzari buruz hausnartzeko ariketa

Madrilgo Proyecto 43-2 konpainiak 'Rescoldos de paz y convivencia' trilogiaren lanetako bat antzeztuko du Lasarte-Orian, urriaren 15ean. 'Viaje al fin de la noche' obra oholtzaratuko dute Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan hasita

Txintxarri

Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkateak eta Maider Lainez Andoaingo alkateak aurkeztu dute egitasmoa. Ondoan izan dituzte udal bakoitzeko beste ordezkari batzuk, Jon Antxordoki, Jon Martin eta David Ares, kasu.

Bi udalek hainbat legegintzaldi daramatzate bi udalerrietan hainbat ekimenen bidez "bakea, elkarbizitza eta memoria inklusiboaren alde lanean", Baketik Fundazioaren bidelaguntzarekin. Bi udalek Elkarbizitza Mahai bana dute eta haietan udal ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek parte hartzen dute. Egitura hauen xedea bakea eraikitzeko eta indarkeriak kaltetutako bizikidetza berreraikitzeko akordioak lantzea da.

Aurten, bi udalerrietako mahaiak elkartu dira bi antzezlanen emanaldia antolatzeko: Proyecto 43-2 eta Viaje al fin de la noche. Maria San Miguelek zuzendutako Proyecto 43-2 antzerki-konpainiaren *Rescoldos de paz y convivencia* trilogiaren parte dira. Trilogia minari, indarkeriari eta elkarrizketari buruzko ikerketa zorrotz baten emaitza artistikoa da. Elkartzen gaituzten edo besteengandik bereizten gaituzten gauzak gehiago ote diren galdera dauka ardatz.

Bi antzezlan

Konpainiari izena ematen dion *Proyecto 43-2* trilogiaren lehen pieza antzeztu dute urriaren 7an. TXINTXARRI-k edizioa itxi duenean hastear zegoen. Abiapuntu du gizarte eta familia harremanetako indarkeria eta honek identitatearen garapenean duen eragina, minak markatutako bizipenetan oinarrituta. Sarrera doakoa da, gonbidapenak Basteroko lehiatilan eskuragarri daude.

BI ELKARBIZITZA MAHAIEN XEDEA BAKEA ERAIKITZEKO AKORDIOAK LANTZEA DA

Urriaren 15ean, 20:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxean, Viaje al fin de la noche obra oholtzaratuko dute. 2017ko azaroan estreinatu zen, eta Max sarietarako izendatu zuten. "Indarkeriazko hamarkadek utzitako herentziaren eta armarik gabeko orainaldian izan duen eraginaren hausnarketa bat azaltzen digu biktimen eta haien ondorengoen bidez. Euskal Herriko orainaldia dokumentatzen du, indarkeriaren seme-alabei ahotsa emanez". Sarrera doan. Gonbidapenak kultur etxeko atezaindegian eskuragarri daude astean zehar edo egunean bertan, ordubete lehenago leihatilan. Goizez, batxilergoko ikasleentzako eskola saioa egingo dute.

Proposamen horren bidez, hausnarketarako "espazio publikoak" ireki nahi dituzte, "errealitate mingarriei begiratzeko guztion artean bake zintzo eta iraunkorra eraikitzen segi dezagun".



Goizane Lopez, Agustin Valdivia eta Angel Lopez akordioak sinatu berritan. TXINTXARRI

Lankidetza akordioak, auzoetako jaiak antolatzeko

Zabaleta Auzolan eta Sasoeta Sasoian elkarteen auzoko festak diruz lagunduko ditu udalak 2002an eta 2023an

Txintxarri

Osasun krisiak eten egin zituen Lasarte-Oriako auzoetako festa eta ospakizunak. Badirudi, ordea, bueltan izango direla datorren urtean. Horren seinale dira udalak Sasoeta Sasoian eta Zabaleta Auzolan elkartearekin sinatu dituen lankidetza akordioak. Hiru urterako hitzarmenak izango dira, eta horien bitartez, udalak auzo horietan antolatuko dituzten zenbait jarduera diruz babestuko ditu.

Sasoeta Sasoianen kasuan, 2021ean ez du diru-laguntzarik jasoko. COVID-19ak eragindako egoera medio, aurten oraindik ospakizunik ez egitea erabaki baitute. 2022an, berriz, 3.1445 euro jasoko ditu udaletik, eta 2023an, aldiz, 3.190. Laguntza ekonomiko horrek honako jarduera hauek babestuko ditu, besteak beste: urrian egingo dituzten festetako txupinazoa eta txaranga, kontzertuak, zezen suzkoa, puzgarriak, sardina jatea eta danborrada. Angel Lopez auzo elkarteko lehendakaria arduratu da dokumentuak sinatzeaz.

Zabaleta Auzolanenen akordioa, antzeko. Elkarte horrek aurten ere ez du jairik antolatu, baina datorren urtean, 2022an, eta hurrengoan, 2023an, bai. Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra izango dira festak, eta egitasmo ugari aurreikusi dituzte dagoeneko, hala nola, haurrentzako jolasak, elektrotxaranga, auzo afaria, erromeria, bertsolariak eta musika emanaldiak. Udalak 3.145 eurorekin lagunduko du datorren urteko egitaraua, eta 3.190 eurorekin 2023koa.

Goizane Lopez auzo elkarteko lehendakari berriak sinatu du lankidetza akordioa.

Erketzen dantza egiteko aukera

Erketz taldeak ekin dio 2021-2022 ikasturteari. Hiru talde sortu ditu: Dantza Taldea, Haurrentzako Dantza Eskola eta Herri Dantza Taldea. "Dantza egiteko edota musika jotzeko gogoa duen edonorentzat" tokia duela azpimarratu du taldeak. Interesa dutenek helbide elektroniko bidez jarri daitezke harremanetan Erketzekin: *dantzaeskolaerketz@gmail.com*.



TXINTXARRI



Islada Ezkutatuak taldeko kideetako batzuk eta Agustin Valdivia alkatea, aurkezpen ekitaldia iragartzeko agerraldian. TXINTXARRI

Bortizkeria frankistaren lekukotzak jaso dituzte

Islada Ezkutatuak taldeak 'Testigantzak' lana ondu du, Lasarte-Oriako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Urriaren 17an egingo dute aurkezpen instituzionala, igandearekin, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 12:00etan

Iñigo Gonzalez Sarobe

"*Testigantzak* liburuaren zentzua ulertzeko, funtsezkoa da honako hau kontuan izatea: Francisco Franco jeneralak eta jarraitzaileek gezur bat bestearen atzetik metatu zituzten. Propaganda makineria martxan jarri zuten eta 1936ko estatu kolpea hiru urteko gerra zibil gisa saldu, baina erregimena ez zen 1939an hasi, 11 urte beranduago baizik, gizartea menderatzea lortu zutenean. Nola egin zuten hori? Errepresioaren, hilketen eta bortxaketen bidez". Joxea Muguruzaren hitzak dira, Islada Ezkutatuak-eko kideetako batenak. Talde horrek urteak daramatza lanean, "bortizkeria frankista" pairatu zutenen memoria "berreskuratzeko, ikertzeko eta gizarteratzeko". Horren adibide da Lasarte-Oriako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin ondu duten lana, *Testigantzak* izenekoa. 2019ko abenduan bukatu zuten, eta iazko martxo erdialderako lotu zuten aurkezpen instituzionala. Ezin izan zuten egin, ordea, COVID-19aren pandemia lehertu zelako.

"Nahi genuena baino denbora gehiago pasatzen ari zela ikusita, lekukotza eman duen pertsona bakoitzari ale bat eman genion iazko uztailean". Muguruzak zehaztu duenez, 101 pertsona elkarrizketatu ditu taldeak, eta horietatik 88 jaso ditu liburuan; "Hamarkada ugari pasa badira ere, zenbait pertsonak beldurra dute oraindik, eta nahiago izan dute haien testigantza publikatuta ez ikusi". Baiezkoa eman duten askok Lasarte-Oriako bizimodua 1936tik 1948ra nolakoa zen kontatu dute.

Aurkezpena, hilaren 17an

Testigantzak-en aurkezpen institzionala hilaren 17an egingo dute, igandez, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, 12:00etan. "Protagonistak gonbidatu ditugu, lekukotzak eman dituzten pertsonak, eta udaleko zein aldundiko ordezkariak ere bai. Joseba Tapia musikariak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoko lau irakaslek ere parte hartuko dute". Ekitaldira joan nahi duten herritarrek kultur etxean eska ditzakete sarrerak.

Islada Ezkutatuakek egindako lana goraipatu du herriko alkate Agustin Valdiviak, eta liburuaz "harro" dagoela adierazi. "Bereziki, eskerrak ematen dizkiet haien bizipenak partekatu dituzten herritarrei, bide ematen digutelako frankismoak egin zituen basakeriak ez ahazteko, eta garai ilun horretan gertatu zena ulertzeko". Prentsa agerraldi bateratua egin dute udalak eta memoria historikoa lantzen ari den taldeak. Muguruzak liburuko pasarte batzuk irakurri ditu, eta amaitu duenean, alkateak adierazi du "sekulako gogoa" daukala *Testigantzak* irakurtzeko.

Lekukotza "beldurgarriak"

Aurkezpenean aleak banatuko dituztela aurreratu du Muguruzak. Halaber, udalak zehaztu du *www.lasarte-oria.eus* webgunean zintzilikatuko dutela liburua. Lanari buruz, Islada Ezkutatuakeko kideak esan du "lekukotza beldurgarrien bilduma bat" dela. "1936tik 1948ra arte, 4.437 egun igaro zituzten gerra egoeran, errepresio izugarri latza jasaten. Guk esaten dugu ez garela galtzaileen seme-alabak edo bilobak, genozidio batetik bizirik atera zirenenak baizik".

401 orri ditu liburuak, eta 311 argazki erabili dituzte orriak ilustratzeko. Originalak dira ia guztiak, bost izan ezik. "Horrelako lan historikoetan ez da batere ohikoa izaten hori", zehaztu du Muguruzak.

ISLADA EZKUTATUAK TALDEAK 88 PERTSONAREN TESTIGANTZAK JASO DITU LIBURUAN



TXINTXARRI

Jalguneri intxaurrondo bat oparitu diote

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek intxaurrondo bat eman diete Jalguneko lagunei aurten bete dituzten hiru hamarkaden opari. *Amaren intxaurrak* ikuskizunaren amaieran jaso dute zuhaixka eta urteurrena ospatzeko egingo dituzten jardueretan haren landaketa txertatuko dutela aurreratu du elkarteko lehendakari Pili Bermejo-k. *Zorionak zuri* elkarrekin abestu eta gero, aretoa hustu denean, talde argazkia egin dute Manuel Lekuona Kultur Etxera bertaratu diren kideek eta pailazoek.



TXINTXARRI

Auto ikusgarriak Lasarte-Orian

Iazko hutsunearen ondoren, bueltan izan dira auto klasikoak eta gama altukoak. San Sebastian Circuit Spiritek antolatutako auto klasikoen eta kirol autoen 4. nazioarteko rallyeak Lasarte-Orian geldialdia egin du. Donostiatik iritsi diren ibilgailuek erregulartasun proba egin dute herrian, Michelindik hasi eta Oriaraino. 84 ibilgailuk parte hartu dute. Agustin Valdivia alkateak eman die irteera.



Inge Mendioroz, ezkerrean, proiektuan parte harte duten beste kideetako batzuekin erakusketaren irekiera ekitaldian. TXINTXARRI

"Ikuspuntu berri batetik egindako begirada da"

INGE MENDIOROZ SORTZAILEA

'Txoria txori' abestian oinarritutako bideo pieza bat ardatz hartuta, erakusketa osatu du artista talde batek. Lasarte-Orian bizi den sortzaileak zuzendu du ikus-entzunezkoa

Maitane Aldanondo

Mikel Laboak Joxean Artzeren hitzei ahotsa jarri, musikaz jantzi, eta kanta moduan aireratu zituenetik *Txoria txori* pertsona andanaren bizitzaren parte da, askotariko bizipenen soinu banda, eta esanahi propio guztiez harago, askatasunaren ereserki. Ideia horiei tiraka joan-etorri berezi bat osatu dute zenbait diziplinetako artistek, artean, Lasarte-Orian hogei urte baino gehiago daramatzan Inge Mendioroz andoaindarra. "Kantari omenaldia da, sortzaile batzuek urte askoren ondoren ikuspuntu berri batetik egindako begirada", laburbildu du Behirada bideoakeko arduradunak.

Barrua eta kanpoa, sorlekua eta atzerria, iluntasuna eta argia, joanaldia eta itzulera. Lau minutu eta erdi eskaseko bidaia da, dantzaren bidez egina, eta ikus-entzuneko batean jasoa; baina oinarriko abestia bezala, asmoa muga horietatik kanpo hazi da. Nagore Legarreta argazkilariak prozesua iruditan bildu du eta Ramon Garcia Zabalegik jantziak prestatu ditu. Hori horrela, elementu horiekin guztiekin instalazio bat atondu dute Donostiako Carlos Santamaria Zentroko Txillardegi erakusketa aretoan. Bertan egongo da ostegunera arte, hilak 14; sarrera doakoa da. Egitasmoa UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak sustatu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu du.

Dikotomia dantza

Artzeren hitzek eta Laboaren doinuek harrera egiten diete aretoaren bisitariei. Bi dantzariak ageri dira proiekzioan, elkarren alboan dantzan. "Barrukoa eta kanpokoa lotu ditugu. Hasieran oso barruan sartuta dago, kanporantz irteten doa eta azkenean etxera itzultzen da", azaldu du Mendiorozek. Bidaiari, beraz, eraikin barruan ekingo dio Iker Murillok, beltzez jantzita eta txapela buruan, Laboaren iruditegia erakusten duen itxura

"LANTALDEAREN LANA DA, DIZIPLINA ARTEKOA, ETA HAU LAN DESBERDINAK IKUSTEKO MODU BAT"

"IZAN DAITEKE OSO IDEIA OROKORRA, ASKATASUNARENA, BAINA, ERA BEREAN, GAUZA OSO ZEHATZA"

du, Euskal Herriari lotutakoa. Vitali Safronkine koreografoa atzean utzi, eta atzerria irudikatzen duen Leitzarango basoko zuhaitzen artean ageriko da dantzan, soka zuri fin batekin egindako txalekoa soinean; alegia, bere hegalak. Eta handik, aretora bueltan, kiribil eskaileran behera, zikloa itxiko du; zerua eta itsasoa aurrez aurre dituen leihotik begira dagoen kidearekin elkartuz.

Alboko hormetako batean zintzilik daude Legarretaren argazkiak, bi grabaketa egunetan ateratakoak eta beste hainbeste saiotan dantzariei egindakoak. Bertan daude ere, Garcia Zabalegik diseinatutako garrantzia estetiko handiko jantziak. Haiek ere erakusteko gogotik jaio zen bilduma. "Grabaketaren ondoren lan hori guztia ikusita pentsatu genuen pena litzatekeela bideo pieza batean bakarrik gelditzea. Lantaldearen lana da, diziplina artekoa, eta hau lan desberdinak ikusteko modu bat", zehaztu du lasarteoriatarrak.

Orokorretik zehatzera

Paradoxikoa badirudi ere, egitasmoak itxialdian hasi zuen bere bidea. Iturburu du Murillori egindako elkarrizketa bat. Betetzeko gelditzen zitzaion amets bati buruz galdetuta, *Txoria txori*-n oinarrituta, Safronkinek sortutako pieza bat dantzatzea gustatuko litzaiokeela erantzun zuen pasaitarrak. Eskatu eta eman: Katedrak beka eskaini zion nahia egikaritu zezan. Dantza, ordea, ikus-entzuneko batean jaso behar zuten eta Mendiorozi eskaini zioten hura zuzentzea. Haritz Arrizabalaga izan du argazki zuzendari eta Legarreta proiektura batu zuen.

Zuzendariak zenbait ideia bazituen ere, "atzean" zegoen istorioaz galdetu zien. Izan ere, "*Txoria txori* izan daiteke oso ideia orokorra, askatasunarena, baina, era berean, gauza oso zehatz batera eraman dezakezu", argitu du. Safronkinek Murilloren bizitza islatu nahi izan du: beste askok bezala, pasaitarrak sorterritik urrun hezi, eta garatu behar izan du bere ibilbide profesionala; txori bilakatzeko atzerrira joan eta hegalak hazi behar izan ditu. Hala ere, beti izan du kabira, Euskal Herrira, bueltatzeko grina.

Mugak, lagun

Ideia horiei guztiei bereak lotu zizkien Mendiorozek kontakizun horretan oinarritutako lana prestatzeko. Argi zuen basoa, itsasoa eta zerua lotu nahi zituela, eta horiek zituzten lekuen bila ari zela Akelarre hotela agertu zitzaion. Kanpoaldean itsasoari begira duen terrazak herritarra txundituta utzi bazuen, barrualdeko aretoetako baten itxurak berretsi zion bilatzen zuen tokia hura zela. Izan ere, Jorge Oteiza eskultorearen estetikaren ukituak baititu.

Dantzariak ikuspegiarekin bat etorri ziren, grabatzeko baimena lortzea ia ezinezkotzat jo arren. Zorionez, ez zen hala izan, ordea; nahiz eta horretarako datak adostea izan zen gehien kostatu zitzaiena. "Hoteleko zuzendari Oihana Subijanari berehala gustatu zitzaion proiektua eta Pedro grabaketa egunean agurtzera etorri zen. Mikel ezagutu zuela eta *Txoria txori* bere abesti gustukoena zela kontatu zigun. Etxean bezala egon ginen", gogoratu du Mendiorozek.

Pandemiaren mugek lagundu zieten, hotela itxita baitzegoen; baina zuzendariaren nahiak pixka bat zapuztu zituen ere. "Nagorek argazki oso esperimentalak egiten ditu, abstraktuak... Nire ideia hortik zihoan, baina horiek egiteko iluntasuna behar zuen". Uda izanik eta etxeratze ordua 21:00etan, ezinezkoa zen. Hori beharrean irudi "dokumentalagoak" egin ditu Legorretak, lan honek argazki klasikoagoa eskatzen ziolako.

BIDEOA IKUSTEKO
www.txintxarri.eus

Kukulaisi topagunera batu da Ttakun KE

Hego Euskal Herriko hamalau elkartek eta Euskaltzaleen Topaguneak federazio bat eratu dute, Kukulaisi izenekoa, euskarazko aisialdia jorratzen duten proiektuak batzeko eta garatzeko helburuz. Ttakun Kultur Elkarteak foro horretan parte hartuko du

Txintxarri

Tokian-tokian euskarazko aisialdia lantzen duten eragileen egitasmoak artikulatzeko eta garatzeko asmoz, hamalau elkarte batu dira Kukulaisi-ra, Ttakun Kultur Elkartea barne, Euskaltzaleen Topagunearekin batera. Federazioa sortzeko batzarra Elgoibarren egin dute.

Euskarazko aisialdiak hizkuntzaren garapenean garrantzi handia duela nabarmendu dute Kukulaisiren sortzaileek. Adin guztietako pertsonen sozializazioan ezinbesteko elementua dela nabarmendu dute, eta euskararen normalizazioan ekarpen handia egiten duela adierazi. Hori dela eta, "beharrezko" ikusi dute arlo horretan aurrera eramaten diren egitasmoak saretzeko eta garatzeko tresna bat sortzea. "Sektore artikulatu batek bere eragina biderka dezake".

Euskarazko aisialdia garatzen duen eragile orori luzatu diete Kukulaisirekin bat egiteko deia. Lehen eratze batzarrean Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako elkarteek parte hartu duten arren, federazioa Euskal Herri osoko elkarteak biltzeko eratu dela argitu dute topagunearen sortzaileek.



Hamalau euskara elkartek sortu dute Kukulaisi federazioa. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Hauek dira Kukulaisirekin gaur-gaurkoz bat egin duten eragileak: Berbaizu Euskara Elkartea, Berbaro Elkartea, Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Dobera Euskara Elkartea, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea, Euskarabentura, Geu Elkartea, Hitzaro Euskara Elkartea, Jardun Euskara Elkartea, Karrikaluze Euskara Elkartea, Noaua Kultur Elkartea, Pil-Pilean Euskara Elkartea, Ttakun Kultur Elkartea eta Txatxilipurdi Elkartea. Horietatik gehienak gipuzkoarrak dira, zortzi guztira; lau eragile bizkaitarrak dira, arabarra bat eta nafarra beste bat.

Mintzapoza tonbola

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak ohitura ez dutenekin elkartzean datza Solaskide programa. Aurtengo kanpaina abian da, eta egitasmoa ezagutzera emateko, Mintzapoza tonbola ekarriko dute herrira Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak, urriaren 14an, 17:00etatik 19:00etara. Partaideek sari ugari irabaz ditzakete.

Josten eta dantzatzen hasi dira

Euskal jantzi tradizionalak josteko ikastaroa eta Plaza dantza egitasmoa martxan daude honezkero. Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak sinatu duten hitzarmeneko jardueretako bi dira horiek.

Zalantzak galdetzeko edota parte hartzeko interesa adierazteko, 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu behar dute herritarrek, edo *kultura@ttakun.eus* helbide elektronikora idatzi.



Emakumeen Zentroan egingo dute ikastaroa. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Euskal jantzi tradizionalen ikastaroa Ione Artola jostunaren gidaritzapean, bi talde elkartuko dira astearteetan eta ostegunetan, euskal jantzi tradizionalak nola egin ikasteko.



Hamar lagun etorri dira lehenengo entsegura. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Plaza dantza egitasmoa Sasoeta ikastetxeko gimnasioan hasi dira partaideak gorputza astintzen. Xabier Fernandez de Lezeak dinamizatzen ditu entseguak.




GURASO LEKU

Familiaren hizkuntza-politika





GurasoLagun



GurasoTegi



GurasoLandia

Euskara ere, familiako kide

Lasarte-Oriako erakunde batzuk lanean ari dira, elkarrekin, euskara indartsuago transmititu dadin familiartean. GurasoLeku egitasmoa ondu dute, eta hiru atal ditu: GurasoTegi, GurasoLagun eta GurasoLandia

Lasarte-Oriako haurrak elebidun oso bihurtzea helburu

GurasoLeku egitasmoa 2014-2015 ikasturtetik dago martxan Lasarte-Orian, eta herriko haurrak elebidun oso bihurtzea du xede, familietan euskararen transmisioa bultzatuz. Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik azaldu duenez, "familia tipologia desberdinetara egokitutako hiru programa" barnebiltzen ditu Gurasolekuk: GurasoTegi, GurasoLagun eta GurasoLandia. Hiru atal horien gainean mintzatu da: "GurasoLagunen, euskaraz mintzatzeko gaitasuna duen pertsona bat elkartzen da horretarako ohitura ez duen batekin, azken horrek mekanismoak har ditzan". GurasoTegi: "Gurasoentzako euskara eskolak ematen dituzte, oinarrizko gaitasunak lantzeko". Hirugarrena GurasoLandia da: "Beste bi ataletako gurasoak elkartu egiten dira, eta aisialdiko jarduerak egiten dituzte haurrekin. Euskaraz hitz eginez gozatzea eta familiartean tarte atsegin bat igarotzea dira helburuak".

Ttakun Kultur Elkartea da programan lan egiten ari den eragileetako bat. Mari Karmen Ormazabal lehendakariak hiru ataletako edozeinetan parte hartzera animatu ditu lasarteoriatarrak: "Herriko ikastetxeekin elkarlanean, espazioak eta tresnak jartzen ditugu familien eskura, haien haurrekin euskaraz hitz egin dezaten". Hezkuntza hizkuntza transmititzeko makulu sendoa izanagatik, inguruak ere "garrantzi handia" duela nabarmendu du Ormazabalek. Herriko gurasook GurasoLeku egitasmoan tokia duela gehitu du.





Euskara familietan indartsuago transmititzeko helburuz, honako erakunde hauek lan egiten dute, saretuta, bakoitzak bere eremuan: Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Burunzpe Guraso Elkartea, Landaberri Guraso Elkartea, Andre Joakina Enea haurreskola, Muntteri AEK euskaltegia, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordea eta Ttakun Kultur Elkartea.

0, 1 eta 2 urteko haurren gurasoentzako eskaintza

Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

Azaroan:	0-2 urteko haurren garapena.	Martxoan:	Umeen erregulazio emozionala
Abenduan:	Solido bidezko elikadura. Elikadura osagarria.	Apirilean:	Larrialdi eta gaixotasunak
Urtarrilean:	Haurren laztanak.	Maiatzean:	Elikadura osasuntsua umeentzat
Otsailean:	Mugimendu librea, autonomia eta sozializazioa.	Ekainean:	Yoga jaioberri eta gurasoentzat

2, 3, 4 eta 5 urteko haurren gurasoentzako eskaintza

TESTIGANTZAK

GurasoLagun

Salamancan (Gaztela eta Leon) jaioa da Blanca Montero eta Euskal Herrira bizitzera etorri zenean erabaki zuen euskara ikasi behar zuela. Iaz aritu zen euskaltegian eta bertan izan zuen GurasoLeku programaren berri. Bi urteko semea du eta GurasoLagun egitasmoan parte hartuko du ikasturte honetan.

Euskara maila hobetu eta semeari transmititu ahal izatea da bere helburuetako bat: "Semeak D ereduan ikasiko du, eta euskara maila on bat izan dezan ahalegindu nahi dugu". Bidelari arituko da Montero, eta izango duen bidelagunak, hau da, euskaraz aritu dadin lagunduko dion pertsonak, ahalbidetuko dio, elkarrekin daudenean behintzat, hizkuntza horretan aritzea.

GurasoLagun programa euskara praktikatzeko baliabide "erosoa" dela azpimarratu du: "Gure egunerokoa euskaraz izan dadin ahalbidetuko diguten beste gurasoak ezagutu eta elkarrekin aritzea oso interesgarria dela uste dut".



Blanca Montero



Janette Gonzalez

GurasoTegi

Iazko ikasturtean hasi zen haurreskolan Janette-ren alaba Kaia, eta bertan jakin zuen GurasoLeku egitasmoaz, eta zehazki, Gurasotegiz. Programarekin bat egiteko erabakia hartu, eta euskara eskolak hartzen hasi zen.

GurasoLandiaren bidez euskara ikasteak erraztasunak eskaini dizkiola azpimarratu du; horien artean, alaba haurreskolan zegoen bitartean jasotzea euskara ikasteko saioak.

Mexikarra da jaiotzez eta Euskal Herrira etorri zenetik euskara ikasteari garrantzi handia eman dio. Lan aukera gehiago izateko eta bizi den inguruan erosoago harremantzeko parada eman diezaiokeela iritzi du. Baina, bereziki familiarengatik eman zuen euskara ikasteko pausoa: "Alaba euskaraz hazten ari da, eta etorkizun batean, gure komunikazioa euskaraz izatea nahiko nuke eta nitaz harro sentitzea".

Egunerokoan, kalean euskara jaso badu ere, euskaltegiari esker ikasi duena "oso baliotsua" izan da berarentzat: "Euskal Herriko historiaren eta tradizioen berri izan dut, eta lehen unetik hain ongi hartu nauen gizarteaz zertxobait gehiago ikasi ahal izan dut".



GurasoLandia

Iraitz semea ikastetxean hasi zenean jaso zuten GurasoLandia egitasmoaren berri. Eskaintza aztertu eta izena ematea erabaki zuten. Semeaz gain, alaba gazteago bat ere badute: Aiene. Hiru urte zituen iaz zaharrenak, eta urtebete baino gutxiago neskatilak.

Iraitzen adin-tarteko eskaintzan, Joseba aitak parte hartu zuen gehienbat. Kontatu du ingurune atsegin batean arratsalde pasak egiteko "aitzakia ona" izan zela programan aritzea. Egitasmoaren gainerako parte hartzaile gehienak ezagunak zituzten, auzo bereko guraso eta haur ugari elkartu baitziren saioetan. Eskulan asko egiten ikasi zutela nabarmendu du.

Aieneren adin tarteko saioetan, berriz, Amaia ama aritu zen gehienetan. Gogoan du saio ia denak hitzaldiak izan zirela, eta guztiak "oso-oso interesgarriak" iruditu zitzaizkion: "Hizlarien ikuspuntua gure heziketa ereduarekin bat zetorren, eta gauza asko ikasteko oso baliagarria izan zitzaigun".



Izagirre-Usandizaga familia

Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

	HH2	HH3	HH4	HH5
Abenduan:	Sehaska kantak	Natura-jolasak	Istorioak asmatu	Kirola
Urtarrilean:	Emozioak: maitasuna	Birziklapena	Musika egin	Antzerkia
Otsailean:	Masaje lantegia	Sukaldaritza	Mozorroak sortu	Dantza
Martxoan:	Emozioak: haserrea	Natura-artelana	Artelanak egin	Plastika
Apirilean:	Koloreen zaporea	Ukendua	Jostailuak asmatu	Gorputz adierazpena
Azken saioa:	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia



Euri zaparrada ederra ari zuela eman zioten hasiera Lurauto BTT probari. TXINTXARRI



Parte hartzaileek ikusleen berotasuna jaso zuten azken metroetan. TXINTXARRI



Lokatza izan zen probako beste protagonistetako bat. TXINTXARRI

Eguraldiari aurre eginez, bizikletaz gozatzen

Inoiz baino gehiagok eman dute izena X. Lurauto BTT proban, zehazki, 650ek. Hala ere, denak ez dira irteeran izan, 523 partaidek egin dute hiru ibilbideetako bat. Eguraldi kaskarra eguneko protagonista izan bada ere, ez die garrantzia kendu egiaz dutenei: txirrindulariei

Maitane Aldanondo

Gogoko bidean aldaparik ez dio atsotitzak, eta zalantzarik ez da urriaren 3an Lurauto BTT proban parte hartzera ausartu zirenek oso gustuko dituztela bizikleta eta mendia. Halabeharrez. Akaso iazko hutsunearen ondorioz pilatutako gogoak eraman zituen Antonio Mercero gunearen ondoan zegoen irteerara. Goizeko bederatzietan gogotik ari zuena euria zen. Eta horrek lokatza esan nahi du mendiko bidean. Eta zenbat eta gehiago zapaldu, are gehiago. Mendira bidean irten zirenean belarri zuloak ere zikinduko zituztela aurreratu zuen lehen pedalkadak ikustera joan direnetako batek. Aztia izateko beharrik gabe, agerikoa zen asmatuko zuela. Eta hala izan zen, noski.

Blai eginda irten, eta blai eginda bueltatu, baina urak kendu ez zien lokatzez ederki zikinduta. Askatasuna parkeko helmuga zeharkatzen lehenak ordubete eta erdi luze behar izan zuen ibilbide laburrena osatzeko; baina gehien-gehienak eguerdi partean iritsi ziren. Zaletuak, senideak eta bestelakoak, azken metroetan eta zabalgunean jarri ziren. Begira zeudenek eta iristen joan ziren txirrindulariek une batzuetan oztopatu egin zuten bidea. Hala ere, ez zuten arazorik eragin.

Indarberritu eta barrua berotzeko hamaiketakoa eman zieten partaideei. Bizikletak garbitzeko, berriz, ibai etzean zenbait mahuka zituzten erabilgarri. Ura hotza bazegoen ere, gainean zeramaten lokatza kentzeko ere baliatu zuten gehienek.

Hiru ibilbide zituzten aukeran: 26,4 kilometro eta 940 metroko desnibela; 34 kilometro eta 1.320 metroko desnibela, edo 46 kilometro eta 1.855 metroko desnibelarekin. Proba luzeena osatzen azkarrenak podiumera igo ziren: Ander Baraika, Jose Maria Pacheco eta Miki Pacheco izan ziren, gizonezkoen kategorian; eta Laura Izquierdo, Ester Pelaez eta Lucia Cirikiain, emakumezkoenean.

Lasarte-Oriako Udalak, Saiatuz TKTk, Fly Gloup-ek eta MX Racing-ek antolatu dute kirol jarduera. Aurreratu dutenez, 2022ko apirilaren 10ean egingo dute XI. Lurauto BTT proba.

Korrikalariek lasterketa gosea asetu dute

Errepideko zein mendiko lasterketa ugaritan parte hartu dute lasarteoriatarrek

Txintxarri

Donostiako Maratoi Erdia, Berrobira krosa, Zumaiako Flysh Trail Mendi Maratoia, Aiako Mendi Lasterketa, Mitxarro Bira... Lasterketak itzuli dira. Udazkenean sartzearekin batera, denboraldiari hasiera eman diote korrikalariek. Ez dira ohiko hitzorduetako batzuk egongo, hala nola, Lasarte-Oria Bai! krosa; baina lasterketa gosea asetzeko adina izango dute zaletuek.

Urriko lehen asteburuan hainbat hitzordu izan ziren eta herritarrek ez zuten hutsik egin. Urriaren 2an, Berrobira krosa antolatu zen. Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) Jon Huici Sagastibeltzak eta Mertxe Casas Sanchezek eta Ramon Altuna Vegasek 7,5 kilometroko ibilbidea egin zuten.

Donostiako Maratoi Erdia, Zumaiako Flysh Trail Mendi Maratoia, Aiako Mendi Lasterketa eta Mitxarro Bira, berriz, urriaren 3an, jokatu ziren.

Zumaiako Flysh Trail Mendi Maratoian, Gorka Mateo Chinchilla herritarrak 42 kilometroko proban parte hartu zuen; Javi Lopez Pielagok, berriz, 21 kilometroko ibilbidea egin zuen. Lehenak 10.16.00 marka egin zuen Zumaiako helmugan; bigarrenak, 07.53.00.

Aiako X. Mendi Lasterketan izan ziren lehian Ibarburu Zuriarrain anaiak, Enaitz (01.46.45) eta Iñigo (01.46.47).

Mitxarro Bira lasterketan ere LOTMEko bi ordezkari izan ziren. David Garciak eta Marc Baguesek 27,5 kilometroko ibilbidea egin zuten hiru ordu eta 11 minututan.

Azkenik, herriko hainbat ordezkari izan ziren Donostiako Maratoi Erdian lasterka, bai 21 kilometroko lasterketan, baita hamar kilometroko proban ere.

LOTMEko Ibon Aguirre Arechavaleta (01.18.21), maratoi erdian, eta Gorka Gil Martin (33.52), hamar kilometroko proban, izan ziren Lasarte-Oriako ordezkaritzako azkarrenak.

Udalaren eta herritarren omenaldia Zudaireri

Nahia Zudaire Borrezo igerilariak Tokioko Paralinpiar Jokoetan egindako lanaren aintzatespena jaso du. Urriaren 1ean, Lasarte-Oriako Udalak harrera egin dio udalbatzar aretoan. Herritarren berotasuna ere jaso du Okendo plazako balkoian

Maitane Aldanondo

Kalean hasi eta kalean amaitu zen ekitaldia. Igeriketa taldeko zenbait kide eta lagunak alboan zituela iritsi zen Nahia Zudaire udaletxe aurrera. Errepide erdira atera eta agurra dantzatu zioten.

Jarraian, udalbatza aretora bidea egin zuen dantzariek atarian osatutako arkua zeharkatuta eta "Ikusi mendizaleak" kantaren doinuak lagunduta.

Aretoko eserlekuak beteta zeuden Zudaire heldu zenean. Bertan ziren, besteak beste, Iñigo Llopis edota Richard Oribe igerilariak. Udal ordezkaritza zabala ere izan zen omenaldian. Zutik eta txalo artean egin zioten harrera.



Nahia Zudaire Borrezo eta Agustin Valdivia alkatea, oroigarriekin. TXINTXARRI

Harrotasuna eta eredua

"Harro gatoz osoko bilkura aretora kirolari gazte bat hartzeko, Tokioko azken Paralinpiar Jokoetan nabarmendu dena. Kirolari bat oztopo asko gaindituta kirol paralinpikoaren hitzordurik garrantzitsuenera iritsi dena. Lortutako emaitzaz oso harro sentitzen gara denok". Hitz horiekin hasi zuen bere adierazpena Valdiviak.

Zudairek sei urterekin hasitako ibilbidea gainbegiratu zuen alkateak, egindako lana nabarmenduz. Buruntzaldea IKTn eta udal igerilekuan hasi zen lehiatzen Zudaire, hasieran, ohiko kirola eta egokitua uztartuta.

Gerora, lehiaketak heldu ziren; gertukoak, lehenik, eta 2017an nazioarteko lehen txapelketan aritu zen. "Harro sentiarazten gaitu gure udal igerilekuan, gure herriko klub batean kirolari gisa prestatu zarela jakiteak. Joan zaren tokira Lasarte-Oriako izena eraman duzulako", aitortu zuen alkateak.

Pandemiak eragindako zailtasunak zailtasun, aurten Tokion lehiatu zen Zudaire eta han emaitza ona lortu zuen: laugarren izan zen bi probatan. Hori horrela, "hemen ikusiko zaitugun azken aldia izango ez dela" aurreratu zuen Valdiviak; izan ere, "igeriketaren oraina eta geroa" dela uste baitu 17 urteko igerilari gaztea, "gainditzen zaila den arerioa".

Bere mugak gainditzeko eta aurre egiteko gaitasuna ere nabarmendu zuen agintariak. Horren adibide, batetik, oztopo zirudien paraparesia "gainditu beharreko helburu" bilakatu izana, eta bestetik, Paralinpiar Jokoetako proba batean jasandako deskalifikazioak ez kikildu izana. "Gogoa izanda, lan eginda eta ahalegina eginez urrutira hel daitekeela erakutsi duzu. Besakadaz besakada eta ostikadaz ostikada erdietsi duzu lortutakoa".



ORIARTE BHI

Oriarte Institutuan ere aitortza

Sorpresa ezin atseginagoa jaso zuen igerilariak urriaren 1ean, goizez, Oriarte Larrekoetxe eraikinean. Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleek eta irakasleek aitortza ederra egin zioten kirolariari. Patioan itxaron zioten, eta agertu zenean, txaloka hartu zuten. Bi ikaslek aurreskua dantzatu zioten, eta amaitzean, lore sorta oparitu zioten. Zentroko zuzendaritzaren eta Oriartekide guraso elkarteko kideen esanetan, "oso polita eta hunkigarria" izan zen ekitaldia.

2024an Pariseko jokoetan emaitzak hobetzea opatu zion.

Mintzaldia amaitzean, lore sorta eman eta zapia jarri zion alkateak omenduari. Hunkituta zegoen igerilari eta esker hitz batzuk besterik ez zituen esan. Batetik, udalari berari Chourrauti eskainitako omenaldi bera egin izanagatik; bestetik, prozesuaren parte izan diren guztiei, bidean alboan izan dituenei.

Kirola, "askatasuna"

Talde argazkiekin amaitu zen ekitaldi instituzionala, eta handik Okendo plazako balkoira joan ziren, herritarren aurrera. Omendua heldu artean, aurkezleak bere ibilbidearen zenbait mugarri errepasatu zituen eta hari lotuta egin zion lehen galdera: Kirola berarentzat zer den. Erantzuna argi zuen Zudairek. Bere bizitzako alderdi asko lotzen baditu ere, hitz bakarrean azaltzeko gai izan zen: "Askatasuna. Nire elbarritasunak askoz gutxiago eragiten dit uretan, eta nire bigarren etxea da, gustura sentitzen naizen tokia". Helburua, berriz, lausoago du orain. Izan ere, ametsa Paralinpiar Jokoetara iristea zen eta hori lortuta hurrengo ez du argi, "askoz gehiago ikasi eta heltzea".

Borja Apeztegia bere lehen entrenatzailea ere alboan izan zuen balkoian. Bere lorpenak ikusteak "poz handia" ematen diola eta klubeko kide bat Tokioko Paralinpiar Jokoetan lehiatu izanaz harro dagoela aitortu zuen.

Txalo zaparrada batekin agurtu zuten plazan bildutako herritarrek igerilaria.

Arteaga II.ak, ezin lau eta erdikoan aurrera egin

Intza Kirol Elkarteko Nagusien 3. Mailako bikoteak Zumaia garaitu, eta lidergoa sendotu du

Txintxarri

Promozio Mailako Lau eta Erdiko Txapelketa urriaren 8an hasiko da. Ez da Lasarte-Oriako ordezkaririk izango, ordea. Axier Arteaga aurrelaria ez da azken fasera sailkatu.

Baiko enpresak txapelketa horretako azken ordezkaria erabakitzeko herritarraren eta Jon Alberdi azpeitiarraren arteko partida antolatu zuen urriaren 1ean. Alberdi izan zen nagusi.

Hasieratik gailendu zen azpeitiarra. Sakearekin min handia egin zion Arteaga II.ari eta 12-0 jarri zen aurretik.

Lasarteoriatarrak ez zuen amore eman. Lehen atsedenaldiaren ostean, erasoari ekin zion. Ahalegina antzua izan zen, ordea. Alberdik lortu zuen txapelketarako txartela.

Seniorrak, sendo

Intza Kirol Elkarteko bikoteak Eskuz Binakako Txapelketan murgilduta daude.



Arteaga II.a, artxiboko irudian. TXINTXARRI

3. Mailako seniorrek beste garaipen bat eskuratu eta eta bere lidergoa sendotu zuen. Nahiz eta Zumaiako bikotearen aurkako partida borrokatua espero, Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak serio jokatu eta 7-22 gailendu ziren.

Jubenil eta kadeteek bestelako zortea izan zuten. Haritza Diaz de Gereñu eta Pedro Elosegui jubenilek ezin izan zuten Tolosako bikotea garaitu, 22-7. Kadete mailan, Gaztelekuko bikoteak nagusitasunez irabazi zion Beñat Olazabalek eta Xuban Urdalletak osatutako bikoteari, 22-3.

Aurpegia eta gurutzea lehen bi partidetan

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak 2-3 galdu du denboraldiko lehen partida; bigarrenean, ordea, arantza kendu du; 1-3 garaitu du Herrikide. Sailkapeneko goiko postuetan egoteko borrokatuko du senior taldeak 2021-2022 denboraldian



Antiguokoren aurka nagusi izan arren, Eguzkik ez zuen punturik eskuratu. TXINTXARRI

Txintxarri

Urtebeteko etenaldiaren ostean, Eguzki Areto Futboleko senior taldeak lehian dira. Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak Maialen Chourraut kiroldegian ekin zion denboraldi berriari; Donostiako Antiguoko izan zuen aurrez aurre. Jokoan nagusi izan arren, partidak ihes egin zion etxeko taldeari, 2-3

Ongi hasi zuen partida Lasarte-Oriako taldeak. 2-0 aurreratu zen, baina Eguzkiko jokalariek arreta bitan galdu eta Antiguokok partida berdindu zuen. "Horrek zalantzak sortu zizkigun. Atsedenaldiaren ostean, jokoa aldatu eta nagusi izan ginen; zortea ez genuen, ordea, lagun izan", adierazi du Eguzkiren entrenatzaile Josu Lopez-ek.

Partidako azken minutuetan, Eguzkiko jokalari bat kanporatu zuten, eta hortaz baliatuz, aurkariak garaipeneko gola egin zuen. Hasiera lanpetua izan du taldeak, bigarren jardunaldiko hitzordua jokatu baitzuen urriaren 6an. Herrikideren aurka neurtu zituen indarrak eta garaile izan zen, 1-3.

"Denboraldiaurreko aurkari izan genuen eta partida zaila izango zela bagenekien. Talde indartsua da eta defentsatik erasora azkar igarotzen dena", adierazi digu areto futbol taldeko prestatzaileak. Esperientzia horretaz baliatuz, Eguzkik ederki egin zion aurre partidari.

Berrikuntzak eta zalantzak

Taldea nabarmen aldatu da. Berritasunen artean, entrenatzailearena. Egun Josu Lopez jokalari ohia da prestatzailea eta Mikel Escribano izango du laguntzaile.

Bost jokalari berri ere izango ditu taldeak. "Jokalari garrantzitsuak galdu ditugu eta taldea indartu behar genuen. Bost fitxaketa egitea lortu genuen eta pozarren gaude, taldeari asko lagunduko diotela uste dugu", adierazi du Eguzkiko entrenatzaile Lopezek.

Prestatzaileak denboraldiaurrea zalantzaz beteta hasi zutela jakinarazi digu: "Urtebete egon da taldea entrenatu gabe eta ez genekien fisikoki nola egongo zen".

Lehen entrenamenduan, ordea, kezka guztiak alde batera utzi zituela onartu du: "Jokalariek sasoia mantendu dute. Hala ere, ohiko denboraldi aurreak baino prestaketa luzeagoa egin dugu lehen partidara fisikoki ongi iristeko".

Entrenamenduez gain, hiru lagunarteko ere jokatu dituzte. Berriki aurkari izan duten Herrikide izan zen lehena; launa berdindu zuten. Bigarren arerioa Oiartzun izan zen eta 4-3 galdu zuen Lopezen taldeak. Azkenik, aurten maila federatura jauzi egin duen Kutxa taldearen aurka jokatu zuen. "Nahiz eta 3. mailan egon, Talde sendoa dute eta 3-2 gailendu ginen", aipatu du Eguzkiko entrenatzaileak.

Taldean ustea izan

1. Mailako taldeak gogo biziz ekin dio denboraldiari. "Jokalariek urtebete daramate lehiatu gabe eta gauzak ongi egiteko grina handia dute. Partidak irabazi eta jokatzen gozatzeko gogoa dute", nabarmendu du.

Taldearen egoera eta motibazioa kontuan izanik, denboraldia lehen lauen artean amaitzea du helburu Eguzkiko entrenatzaileak: "Zaila da baina helburua erdiets dezakegulakoan nago. Bide onean goaz eta kalitate handiko taldea dugu. Gazteak izan arren esperientzia dute eta ziur xedea lortzen dugula."

2. Mailakoen garaipena

Alaitasunerako tartea ere izan zuen Eguzki Areto Futbola sailak lehen jardunaldian. 2. Mailako Eguzki ISU Leihoak taldeak Eskoriatzaren aurka jokatu eta garaipena erdietsi zuen, 0-4. Horri esker, sailkapeneko bigarren postuan jarri da.

Lehen postuetan mantentzeko borrokatuko da senior mailako bigarren taldea. Aukera berri bat urriaren 8an Maialen Chourraut kiroldegian izango du; Gaur Logistika Lazkao izango du aurkari.

Horrez gain, urriaren 9an, Jubenil mailako Eguzki 2KN taldea batuko da lehiara. Aldapeta C taldearen aurka jokatuko dute taldeko gaztetxoek, etxean.



Partida amaitzean, taldeak elkarri agurtzen. ANGEL AYASTUY

Junior Errendimendu taldeak, etxean ere garaipena

Mondragon Unibertsitatea Ointxe gainditu du Maialen Chourraut kiroldegian jokatutako lehen partidan

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia saileko Junior Errendimendu taldeak denboraldiko bigarren jardunaldiko partida jokatu zuen Maialen Chourraut kiroldegian, urriaren 2an.

Talde urdin-beltzak Mondragon Unibertsitatea Ointxe-ren aurka neurtu zituen indarrak eta Endika Marrahik zuzentzen duen taldea garaile izan zen, 57-43.

Lehenengo laurdenean, etxeko taldeak ezarri zuen erritmoa. Baloia mugitu, aukerak bilatu eta sarrerak eginez, saskiratze erosoak egin zituzten. Arrasateko taldeak ere aukera ugari izan zituen saski azpian, baina ez zuen jokaldiak amaitzen jakin.


Aurkariak kanpoko jaurtiketetan fin ibili arren, Ostadarreko taldeak bere jokoarekin jarraitu zuen bigarren laurdenean. Ondorioz, markagailuan hamabost puntuko aldea ireki zuten Junior Errendimendu taldeko kideek.

Atsedenaldiaren ostean, zailtasunak izan zituen etxeko taldeak. Baloi asko galdu zituen Ostadarrek eta hiru puntu bakarrik lortu zituen. Mondragon Unibertsitatea Ointxek, ordea, bere izaera erakutsi zuen. Hiru puntuko bi jaurtiketa eta hiru baloi lapurreta saskiratze bihurtuz bi puntutara jartzea lortu zuen Arrasateko taldeak.

Etxekoek ez zuen amore eman eta indartsu hasi zuten azken laurdena. Erasoa ongi kudeatu eta abantaila hartu zuten berriro ere; Arrasateko jokalariek ezin izan zuten ezer egin. 11 puntuko aldea izan zen partzialean eta horri esker, Junior Errendimendu taldeak denboraldiko bigarren garaipena erdietsi zuen.

Ipar martxa inklusiboa

Ostadar Ipar Martxa taldeko lau irakaslek NWBlind gailua ezagutu zuten, urriaren 3an, Donostian. Tresnaren bitartez, desgaitasun bisuala duten pertsonek ipar martxa egin dezakete gida baten laguntzaz. Murtziako Erkidegoko Mendi Federazioko Mendi eta Desgaitasunak batzordeko kide eta gailuaren sortzaile Pablo Barrialek eskaini zuen saioa, eta bertaratu zirenek tresna probatzeko aukera izan zuten.



OSTADAR IPAR MARTXA



“Erregalu bat da nik irakurtzen dudan poz beragaz beste etxe batean nik idatzia hartzea”

Onintza Enbeita

Bertsolaria eta iritzigilea

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Eneko
Urteak betetzea ez da zahartzea, bizitzan esperientzia gehiago edukitzea baizik. Zorionak!



Manuel
Beste urte batez zure urtemugan zoriondu nahi zaitugu, maitasun handiz. Gehiagotan ere ospatzea espero dugu. Zure seme eta emaztea.



Ane
Zorionak printzesa zure 12. urtebetetzean! Segi beti bezain alai eta pozik. Muxu asko familiaren partetik.



Luka
Zorionak pittin! Biiiiii urte handi gurera iritsi eta zure irrifartxo bihurri ta zalamero horrekin alaitu zenuenetik. Muxu goxo bat zuretzat!



Eneritz
Zorionak Eneritz!!! Asko maite zaitugu... Muxu hauuundi bat Haritza, ama eta aitaren partetik



Aiora
Zorionak Aiora. Disfrutatu zure 14. urtebetetzea! Jarraitu hain jatorra!! Etxekoen partetik mila pila muxu!!!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06.

ERRENTAN EMAN

Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89.

Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia: 648 20 08 11.

LANA

ESKAINTZA

Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

ESKARIA

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia: 670 20 78 14, Amaia.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@
ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 8	DE ORUE
LARUNBATA, 9	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 10	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 11	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 12	GIL
AZTEAZKENA, 13	LASA
OSTEGUNA, 14	ACHA-ORBEA
OSTIRALA, 15	GIL
LARUNBATA, 16	URBISTONDO
IGANDEA, 17	URBISTONDO
ASTELEHENA, 18	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 19	DE ORUE
AZTEAZKENA, 20	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 21	LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas':
Andrea kalea 48, Hernani.
943-55 17 93

***URTE OSOKO GUARDIAK* APP-A eskuragarri app store edo android marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* orrialdean eskuragarri.

OHARRA

Familia-katekesia urriaren 9an hasiko da

Lasarte-Oriako parrokietako (Arantzazuko Ama eta San Pedro) haur famili katekesiari hasiera ematera doazela jakitera eman dute antolatzaileek. Urriaren 9an, larunbatearekin izango da lehen saioa.

Aurten hasteko asmoa duten familiek, haur eta guraso, hilaren 9an, San Pedro parrokira joan beharko dute, goizeko 10:30ean. Bigarren mailekoak, egun berean, 11:30ean izango dute saioa eta hirugarren mailakoek, berriz, 12:30ean.

Hitzorduetan aurtengo antolakuntzaren gainean jardungo dira: egunak, lekuak, maiztasuna, eta abar. Bertan bi parrokietako familiak bilduko dira, nahiz eta gero agian katekesia Arantzazuko Ama parrokian ere eman.

Zalantzarik izanez gero, deitu 655 70 92 87 telefonora.

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak: Igone Mendizabal, Olatz Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Leyre Hungria eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, SA

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Aste Kulturala. Urte eta erdiren ostean, Semblante Andaluz elkartea jarduerak antolatzen hasi da berriro. Oraingo honetan, Aste Kulturala: kontzertuak, hitzaldiak eta magia ikuskizunak izango dira egitarauaren ardatzak. Okendo plazako karpan aurrera eramango dituzte ekimen guztiak hilaren 12ra arte (igandea). Egun bakoitzeko ikuskizun batez edo biz gozatuko dute bertaratzen diren lasarteoriatarrek. Flamenko kontzertuek dezenteko pisua dute programan: Nadia Redin eta Katak taldeak ariko dira, hilaren 9an eta 11n, hurrenez hurren, 19:00etan. Semblante Andaluzek herritar guztiak gonbidatu ditu XVIII. Aste Kulturalaz gozatzera.
Urriaren 7tik 12ra, bi egunak barne, Okendo plazako karpan.

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Zinema
Okendo Zinema Taldeak *Nora* filma ikusteko aukera eskainiko die herritarrei. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Manuel Lekuona Kultur Etxeko leihatilan, 5,50 euroren truke.
Kultur etxea, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Via Verde taldeak rock kontzertua emango du. Horren aurretik, Semblante Andaluzek XVIII. Aste Kulturalaren hasiera ekitaldia egingo du: ongi etorria eta agurra.
Okendo plaza, 19:45ean hasita.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA Ikastaroa
Herritarrentzako saioa antolatu du Lasarte-Oriako Udalak, txapak nola egin ikasteko. Hasi aurreko minutuetan eman behar da izena.
Zumaburu auzoan, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa
Ipuin kontalari batek martxan jarriko du txikienen imajinazioa. Hasi aurreko minutuetan eman behar da izena.
Sasoeta auzoan, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Gastronomia
Urdaiazpiko ebakitzailea ekarriko du Jalgik, eta ardo botilak zozkatuko ditu.
Jalgi kafe antzokia, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Nadia Redin dantza irakasleak flamenko ikuskizuna emango du.
Okendo plaza, 19:00etan.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Zinema
Peter Rabbit 2: a la fuga filma emango dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean eros daitezke sarrerak, 3,80 eurotan.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Julen Basterrak eta Imanol Vitoresek gitarra eta mandolina kontzertua emango dute.
Okendo plaza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Urriaren 8ko emanaldira joan ezin izan dutenek beste aukera bat izango dute *Nora* pelikula ikusteko. Manuel Lekuona Kultur Etxean erosi behar dira sarrerak, 5,50 euroren truke.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 11

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Futbolari buruzko hitzaldia emango du Mikel Etxarri lasarteoriatarrak. Entrenatzaile profesionala da.
Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Katak taldeak flamenko doinuetan oinarritutako ikuskizuna ekarriko du Lasarte-Oriara.
Okendo plaza, 19:00etan.

ASTEARTEA 12

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Etxeko txikienak liluratuko ditu Rafafa magoak, hainbat trikimailurekin osatutako ikuskizunean.
Okendo plaza, 13:00ean.

LASARTE-ORIA Aste Kulturala
Semblante Andaluz elkarteko koruak, Semblante Rocierok, kontzertua emango du.
Okendo plaza, 19:00etan.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Opera
Giuseppe Verdi XIX. mendeko musikagilearen *Il trovatore* operaz gozatu ahalko dute herritarrek. Sarrerek 7,50 eta bederatzi euro artean balio dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA Erakusketa
DravetTzari erakusketak ateak zabalduko ditu. Gero Axular Kultur Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak elkarlanean sortu dute proiektua eta Dravet sindromeaz kontzientziatzea eta kultura inklusiboa sustatzea ditu xede. Sarrera, doan.
Antonio Mercero aretoa, 17:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Lehiaketa
Solaskide egitasmoa ezagutzeko Mintzapoza tonbola ekarriko dute Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak.
Okendo plaza, 17:00etatik 19:00etara.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Antzerkia
Proyecto 43-2 taldeak *Viaje al fin de la noche* antzezlana ekarriko du. Sarrera doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Antzerkia
La Chirigota de los Daddy Cadi taldeak *Lo siento Patxi, no todo el mundo puede ser de Euskadi* lana eskainiko du. Sarrerak 12,50 eurotan daude salgai.
Kultur etxea, 19:30ean.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Literatura
Islada Ezkutatuak taldeak *Testigantzak* liburua aurkeztuko du.
Kultur etxea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
La patrulla canina: la película ikustera joateko aukera izango dute etxeko txikienek. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai, 3,80 euroren truke.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Herritarrek *Adiós, idiotas* filma ikustera joateko aukera izango dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan salgai daude, 3,80 eurotan.
Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Zinema
Okendo Zinema Taldeak *First cow* filma ikusteko aukera eskainiko die herritarrei. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Manuel Lekuona Kultur Etxeko leihatilan, 5,50 euroren truke.
Kultur etxea, 20:30ean.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Ikuskizuna
XVII. Dantza Zirkuituaren barruan *Higa* emanaldiaz gozatzeko tartea izango dute dantza zaleek. Sarrera doakoa den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa izango da ikuskizunaz gozatzeko.
Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

'Dune'
Urriak 8: 18:15, 21:45.
Urriak 9: 18:15, 21:45.
Urriak 10: 18:15, 21:45.

'La Patrulla Canina: la película'
Urriak 8: 15:55.
Urriak 9: 15:55.
Urriak 10: 15:55.

'La familia Adams 2'
Urriak 8: 15:45, 16:50, 18:10, 19:15, 20:35.
Urriak 9: 15:45, 16:50, 18:10, 19:15, 20:35.
Urriak 10: 15:45, 16:50, 18:10, 19:15, 20:35.

'Maixabel'
Urriak 8: 16:30, 19:20, 22:10.
Urriak 9: 16:30, 19:20, 22:10.
Urriak 10: 16:30, 19:20, 22:10.

'No respires 2'
Urriak 8: 21:40.
Urriak 9: 21:40.
Urriak 10: 21:40.

'Sin tiempo para morir'
Urriak 8: 16:55, 17:45, 20:30, 21:20.
Urriak 9: 16:55, 17:45, 20:30, 21:20.
Urriak 10: 16:55, 17:45, 20:30, 21:20.

'Las leyes de la Frontera'
Urriak 8: 16:00, 19:00, 22:00.
Urriak 9: 16:00, 19:00, 22:00.
Urriak 10: 16:00, 19:00, 22:00.

'Madres paralelas'
Urriak 8: 16:15, 19:10, 22:05.
Urriak 8: 16:15, 19:10, 22:05.
Urriak 8: 16:15, 19:10, 22:05.

ANDOAIN

BASTERO

'Adiós, idiotas'
Urriak 9: 19:30, 22:00.
Urriak 10: 19:30.
Urriak 11: 19:30, 22:05



28 urte!
txintxarri
1993ko urriaren 1a 1. Zenbakia

Ezaguna dute herri aldizkaria

TXINTXARRI aldizkariaren gaineko galdera lehiaketa antolatu dugu, agerkariaren 28. urtemuga ospatzeko. 70 lagunek parte hartu dute lehian, eta horietatik guztietatik hamaseik asmatu dituzte galdera guztiak. Haizea Bravok eta Gorka Mendizabalek irabazi dituzte sariak

Txintxarri

TXINTXARRI-k 28 urte bete zituen urriaren 1ean eta urtemuga hori herritarrekin ospatu asmoz, galdera lehiaketa bat jarri zuen martxan. Agerkariaren gaineko hamar galdera prestatu, eta horiek zuzen erantzutea zen parte parte hartzaileen eginkizuna. Eta fin aritu dira batzuk, bai horixe!

Lehiaketak irabazteak, saria izan ohi du gehientsuenetan, eta kasu honetan ere, sari bikoitza izan da jokoan. 70 lagun animatu zarete lehian aritzera, eta horietatik guztietatik, hamaseik erantzun dituzue galdera guztiak zuzen. Zorionak! Horrela, erantzun guztiak asmatu dituzuenon artean, Avenida Taberna-n bazkaltzeko txartel bikoitza zozkatu dugu, eta Haizea Bravo izan da garailea. Parte hartzaile guztien artean, berriz, Yon Mikel Rodriguez-ek – taberna horretako sukaldariak – egindako patata tortilla eder bat zozkatu dugu, eta Gorka Mendizabal izan da saritua. Zorionak, beraz, biei, eta mila esker parte hartu duzuen guztioi!

Elkarrekin beste 28 baietz!



Haizea Bravo Avenida Tabernako Yon Rodriguezekin, saria eskuartean duela. TXINTXARRI



Gorka Mendizabalek patata-tortilla ederra eraman du etxera, ogi eta guzti. TXINTXARRI

BABESLEA aldika produktu bereziak Tel.: 943377089 • aldika@aldika.com • www.aldika.com

Aldikako produktuen otarra, Jose Manuel Bernardorentzat



'La Kontxa hondartza'. JOSE MANUEL BERNARDO

Txintxarri

TXINTXARRI aldizkarian antolatu genuen udako oporraldien argazki lehiaketak ere badu irabazlea. Hasieran, bozka ematea irekia utzi bagenuen ere, argazki batzuen botoak zenbatzerakoan irregularitasunak atzeman genituen. Hortaz, irabazlea deliberatzeko sistema aldatzea erabaki eta hiru argazkilari profesional izendatu ditugu epaile gisa: Isaac Farrè, Idoia Telleria eta Aitzol Etxegoien. Horiek arduratu dira garailea aukeratzeaz. Jose Manuel Bernardo-k bidalitako *La Kontxa hondartza* argazkia izan da bozka gehien lortu dituena, eta hortaz, lehen sailkatua. Zorionak! Laster jasoko du Aldika produktuez betetako otar ederra! Guztira 45 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara.



'Urnietako igerilekuan'. J.M. BERNARDO



'Ilunabarrak'. ENARA IEREGI



'Mamu bizia'. GORKA LASA

GALDERA LEHIAKETAREN IRABAZLEAK